

Bezeroekiko harremanak

Gure baserri eskolaren negozio ideia aurrera atera ahal izateko, garrantzitsua deritzogu ere gure bezeroekiko harremana kalitatezkoa eta ahalik eta hoberena izatea. Bezeroak dira, neurri handi batean, gure proiektua aurrera eramaten lagunduko digutenak eta gure proiektuaren hazkundera sustatuko dutenak.

Gure baserri eskolak eskainiko duen harreman mota, pertsonala izango da, batez ere. Hau da, momentu oro lankide taldeen laguntza pertsonala izateaz gain, hurbilekoa izango dela azpimarratzen da. Azken batean familiak eta haurrak izango dira gure baserri eskolaren bezero nagusiak. Horregatik, uste dugu bezeroekiko harreman hori gertuena, beroena eta egokiena dela.

Gure baserri eskolak baditu ere bezeroekiko helburu batzuk: Alde batetik, familia, hezitzaile eta haurra berriak etortzea nahi ditugu, etorriko diren guzti horiekin eustea eta mantentzea, eta azkenik, gero eta pertsona gehiagok baserri eskolaren berri izatea. Gure baserri eskola aurrera egin ahala, gure bezeroen gaineko ikerketa bat egitea pentsatu dugu. Bezeroen nahiak, interesak edota bestelako aspektuak ezagutuz hauek nahi dituzten zerbitzuak modu egokian eskaini ahal izateko erabiliko ditugu, hauen satzfazioa eta onspena lortzeko.

Bezeroak ezagutu ondoren, hauei zer nolako zerbitzua eskainiko diegun zehazteko, lagungarria izango zaigu aurretik aipatutako informazio hori. Ohartu behar gara etorriko diren familia eta pertsona guztiak guregan konfiantza osoa jarri dutela eta hori modu batean edo bestean itzuli beharko diegula. Konpromisoa eta konfiantza ezinbestekoak izango direlako gure harremanetan.